



euskalmendizalefederazioa

EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Ohiko Batzar Orokorra

Eguna: 2018ko apirilaren 21a, larunbata.

Ordua: lehen deialdia 10:00etan, eta bigarrena, 10:15ean.

Lekua: Makina Erremintaren Institutua

azaroaren 11n, larunbatean, 10:15ean hasi da EMFren Ohiko Batzar Orokorra, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan.

EMFren lehendakaria, José Ramón Alonso, da batzarreko lehendakaria, eta EMFren idazkariak, Vicente Lópezek, egin ditu idazkari lanak. Era berean, mahaian daude Leire Salazar lehendakariordea, José Antonio Arriola diruzaina, eta David Alday batzordekidea.

Aztergai hauek izan dira, GAI-ZERRENDAREN arabera:

Ohiko Batzar Orokorra: 10:15ean

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio
2. Lehendakaritzaren txostena
3. 2017ko Itxieraren proposamena eta onarpena, hala badagokio
4. 2018ko jardueren egutegia onartzea, hala badagokio
5. EMFren aseguruari buruzko galderak
6. Galderak eta eskariak

Lehendakariak esan du EMMOAko ordezkari den Antxon Iturrizari ematen diola hitza, berorren azalpena aurreratuz, Javier Eguskiza *Kartajanarri* egingo zaion hil osteko omenaldira joateko aukera izan dezan.

Egoitza bat aurkitzeko dituzten arazoak azaldu ditu hasieran, eta ondoren, esan du, EMF hasieratik Patronatuko Batzordeko kide den bezala, orain, halaxe dela Nafarroako Federazioa ere.

Argazki-funtsak digitalizatzen ari dira (Antxon Bandresen eta Antonio Telleriaren bildumak bukatuta daude, eta laster gauza bera egingo da Pedro Udaondorenekin ere); 3.000 aletik gorako liburutegia katalogatzen ari dira; Tximistek Everestera egindako espedizioaren maketa bat berriztatu da; eta egin dituzten balentriengatik aztarna utzi duten mendizaleak elkarrizketatzen ari dira. Artxibo historikoa Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusian, Bilbon, dago une honetan: artxiboa garbitu egin da, eta beharrezkoa zen hautaketa hori egin ondoren, hurrengo fasea digitalizatzea da.

Jendaurreko lanari dagokionez, Vasco de Camping Elkartearekin elkarlanean jardun zen urte hasieran Julio Villarri eskainitako erakusketan; Pol Pol elkartearen 75. urteurrena zela-eta, Bergaran izan ziren; eta Fernando Larruquerti buruzko ekarpen txiki bat egin zen Irunen. "Mendi Bete Diru" erakusketak Lemoako Ganzabal klubaren eskutik ekin zion bere ibilbideari, eta handik Donostiara (Vasco de Camping kluba) eta, gero, Gasteizera (Manuel Iradier Txangolari Elkarte) jo zuen.

Nazioartean, International Mountain Museums Alliance-ren urteko bilerara gonbidatu dituzte; topaketaren antolatzailea den Servei d'Informació de Muntanya erakundeak gonbidatu dituzte.

Parte-hartzaileak:

Zuzendaritza Batzordeko idazkariak zerrenda irakurri du: 33 klub eta 5 kirolari, 68 boto guztira.

Klubak: * Araba: Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., San Ignacio Kluba.

* Bizkaia: Artarrai M.T., Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Egunsentia M.T., Erdella M.T., Arroletza M.T., Ganguren M.T., Goiko Mendi M.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Juventus K.E., Munarrikolanda, Enkarterri M.T., Turista Barakaldo, Untza M.T.

* Gipuzkoa: Aizkardi M.E., Beasaingo Arrastaka M.K.T., Alpino Uzturre Elkarte, Vasco de Camping kluba, Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkarte, Mendi Zaleak M.E., Erlaitz K.E., Antiguoko Mendizaleen Elkarte.

Kirolariak: José Ramón Alonso Rodrigo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Domingo García Valerio, Víctor M. Vivar.

Parte hartu dutenek batzarreko kideen % 20,21 ordezkatzeko dute.

EKF Bren abokatuaren laguntzaz egin den testua irakurri du lehendakariak; EMFren osaketan klubek duten ordezkari buruzkoa da testua. Aurrez gogorazi du, 2017ko azaroko batzarrean, ordezkari gaia aztertzea eta erabakitzea adostu zela, eta, eredu berri bat aurkeztu ez zen bitartean, Bizkaian egindako izapideak onartzea, bai eta beste bi lurraldeetarako ordezkari-ereduak ere.

– BMFren lehendakaria

BMFk, EMFren hauteskunde-prozesuan, aurkeztu zuen jada klubek adierazitako ordezkarien zerrenda jasotzen zuen dokumentua.

– BMFko kirolaria (Domingo García Valerio)

Bada xehetasun bat: dokumentuak BMFri aurkeztu zaizkio, baina batzar desberdina da, eta desberdinak dira sinestamenduak ere; EMFri begirako dokumentu bat behar da.

– Ganguren kluba

EMFren ordezkari-dokumentu berri horrek nolakoa izan behar duen argitzeko eskatu du.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Irakurri den dokumentuaren kopia bidaliko die klubei Zuzendaritza Batzordeak, eta legegaldi honetako EMFren batzarretarako ordezkari-dokumentuaren eredu bat aurkeztuko du.

✓ *EMFren diruzaina*

EMFren lizentzien aplikazioan datuak eguneratzeko eskatu du.

– BMFko kirolaria (Domingo García Valerio)

Oso garrantzitsua da aplikazioan datuak eguneratzea, klubak (eta ez pertsonak) duen erantzukizunagatik.

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio

Batzarrerako Deialdiarekin batera akta ere bidali dela kontuan hartuta, eta bertaratutako inork irakurtzeko eskatu ez duenez, batzarkideek oharrak egin dituzte.

- Baskonia kluba
Pertsona berak egindako parte-hartze batean, lehendakariak erantzun ziola dago jasota, eta diruzainak erantzun zion.
- BMFren lehendakaria
Egin ziren bozketetako botoen zerrendaketa alderantziz dago.
- ✓ *EMFren idazkaria*
Bozketak gainbegiratuta daude (bozketarako erabiltzen den kalkulu-orria gainbegiratuta dago, eta kontaketa eskuz ere eginda dago), eta ez dago akatsik bozketetan.
- ✓ *EMFren lehendakariordea*
Berak erantzun zuela uste du; hala ere, ez dago inolako arazorik akta zuzentzeko –zegokionean jaso ziren oharrak berraztertu ondoren–, Baskoniaren parte-hartzeari dagokionez.

BOZKETA:

BAI: 50 boto, % 73,53

Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., San Ignacio Kluba, Artarrai M.T., Egunsentia M.T., Erdella M.T., Ganguren M.T., Goiko Mendi M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Juventus K.E., Munarrikolanda, Aizkardi M.E., Beasaingo Arrastaka M.K.T., Alpino Uzturre Elkartea, Vasco de Camping Kluba, Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkartea, Mendi Zaleak M.E., Erlaitz K.E., Montañeros Antiguu E., José Ramón Alonso Rodrigo, Domingo García Valerio.

EZ: 9 boto, % 13,24

Arroletza M.T., Ganerantz M.T., Turista Barakaldo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Víctor M. Vivar.

Abstentzioa: 9 boto, % 13,24

Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Gailurra M.T., Enkarterri M.E., Untza M.T.

Guztira: 68 boto

Aho batez onartu da 2017ko azaroaren 11ko Ohiko Batzarraren akta.

2. Lehendakaritzaren txostena

Idazkari berria, Vicente López jauna, aurkeztu du lehendakariak batzarrean, aurreko idazkaria, arrazoi pertsonalengatik kargua utzi zuena, ordeztuko duena; inork ez du ezer esan gai horren inguruan.

- Besaide: eguraldiaren ondorioz, obrak nahi baino gehiago atzeratu dira, baina bide onetik doaz. Egin diren laginen argazki batzuk erakutsi dira.
- EMFren diru-laguntzak: jada 2016ko deialdian, eskatzaileei informazio gehiago eskatu behar izan zitzaien; egoera hori errepikatu egin da, eta, beraz, araudian aldaketa batzuk txertatu behar direla adierazten du horrek (kontzeptuei egokitzen ez zaizkien datuak dituzten memoria batzuk aipatu dira).

Une honetan, eskariak gainbegiratu dira, aurkeztutako memoria zuzentzeko aukera eman den arren, zenbait klubek oraindik ez baitituzte baldintzak betetzen; bikoiztasunak saihesteko, informazioa eskatu zaie FEDMEri eta Lurralde Federazioei.

Gogorarazi da klubek dagozkien lurralde-federazioetan argitaratu behar dituztela beren egutegi ofizialak.

- Bidezidorrak: bidezidorren batzordearen izenean, David Aldayk esan du lurralde-federazioekin batzorde batzuk eratu direla. 2017an, aurreko batzordekidearekin, Juanfer Azkonarekin, bilera bat egin zuen, eta, ondoren, FEDMErekin, J.M. Nasarrerekin (beste federazio batzuetako dekretuak garatzen ditu) eta A. Turmorekin (FEDMEren bidezidorren arduraduna) jarri zen harremanetan, dekretu berri bat garatzeko, mendi ibiliak egiten dituzten pertsonen ehunekoa oso altua baita; azken bilera horren ondoren, lurralde-federazioetako arduradunei bilera baterako deialdia egin zitzaion, eta Gipuzkoakoa soilik agertu zen bilerara.

Era berean, jakinarazi du 2019ko Bidezidor Kirolaren Estatuko Jardunaldiak Euskal Herrian egingo direla, EMFk antolatuta: lurralde-federazio bakoitzak proposamen bat egiteko proposatu zuen EMFk, eta uztailera arteko epea zegoen horretarako (orain arte, GMFk soilik erantzun du).

- Webgunea: emf.eus domeinu berria, mugikorretik kontsulta daitekeena, eta sare sozialetara konektatuta dagoena. Webgunean jasoko diren edukiak aurkeztu dira labur-labur, bai eta horien egiturak ere (estranean eta intranean); estraneten zentralizatuko da klubak kudeaketa (lizentziak). Diseinatzen ari dira, berorren funtzionamendua gaur egungoaren ahalik eta antzekoena izan dadin: erabilera errazteko, bilerak egingo dira klubekin, nola funtzionatzen duen azaltzeko. Klub bakoitzaren kudeaketa partikularra ezartzera bideratuta egongo dira berrikuntza garrantzitsuenak, eta, horretarako, bilerak egin dira gaur egun Ariturekin zituzten hitzarmen partikularretan espezifikazio horiek erabiltzen zituzten klubekin.

Esku-hartzeak eta azalpenak:

- BMFren lehendakaria

Diru-laguntzei dagokionez, BMF ez dago batzordean, laguntzarik eskatu ez zaiolako, eta Bidezidorren Batzordeari dagokionez, pozten da EMFk jardunaldi horiek antolatzeaz, baina gogorarazi du BMFk antolatu zituenean bakarrik utzi zutela eta orain, aldiz, estatuko deialdiari babesa ematen zaiola.

- Baskonia kluba

Zein enpresak egin du webgunea?

- Gailurra kluba

Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena, nola egingo da?

- Ganguren kluba

Bidezidorrei dagokien guztia babesten du, egiaz gehienak mendi ibiliak egiten dituztenak baitira.

Diru-laguntzari dagokionez, klubei jakinaraziko zaie? Ezin da erakutsi ondo egiten dutenen memoria?

- ✓ EMFren lehendakaria

Zuzendaritza Batzordeak 2017ko azaroaren amaieran egin zuen bilera bateko gai-zerrendako puntu bat izan zen diru-laguntzen deialdia, eta bilera hartara ez zen azaldu lurralde-federazioetako ordezkariak. bilera hartan, araudi berria aurkeztu zen, hurrengo urtera begira izango ziren aldaketa batzuei buruz

hitz egin zen (aurrez emanda zegoen horiei buruzko abisua), eta batzordea eratzeko boluntarioak eskatu ziren.

Araudia behar bezala betetzen duten memoriak erakusteari dagokionez, horiek egin dituzten klubekin harremanetan jarri behar da lehendabizi, eta publiko egitea onartzen duten edo ez ikusi behar da.

– GMFren lehendakaria

Lehendakariak beste lan asko dituzte egiteko.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Zuzendaritza Batzordean eztabaidatzen den gaia dela gogorarazi dio.

✓ *EMFren lehendakaria*

Ez dugu inor kanpoan utzi.

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

BMF beren jardueran "bakarrik uzte" horri dagokionez, hango lehendakariari gogorarazi dio EMFk hiru lurralde-federazioetako jarduera komunak babesten dituela, eta BMFren proiektua aurkeztu zuen bilera haietako batean, AMFren lehendakaria altxatu egin zela eta alde egin zuela, proiektua defendatzen hasi zenean.

✓ *EMFren lehendakaria*

2017ko azaroan egin zen aurreko batzarrean, Ariturekin izan ziren arazoak azaldu ziren. Webgune berrirako deialdia egin zen, eta 3 hautagai aurkeztu ziren; horietatik, ZIRANET aukeratu zen.

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

Gailurrako ordezkariak egin duen esku-hartzeari erantzuteko, DAEMekin 2018rako sinatutako akordioen xehetasunak eman ditu. Besteak beste, honako datu hauek eman ditu: FEDMEren datuen arabera, mendi ibiliak egiten dituztenen % 6 soilik dago federatuta; lerro estrategiko batzuk daude Hitzarmenean jasota, eta baita Zuzendaritza Batzordean azaldu zen segurtasun-proiektu bat ere (eta azaldu egin du); APP aplikazio baten garapena, bidezidorren, haien egoeraren eta abarren inguruan prestatzeko, informatzeko eta jarduteko eta bidezidorrak mantentzeko tresna gisa, guztiok izan gaitzean zaindari eta, gainera, informazioa eman dezagun (istripuen berri emateko aukera ere eskainiko du, 112 zenbakiarekin harremanetan jarritz).

– Gailurra kluba

Udalen gaiari dagokionez, ez du ondo ulertu: deialdia udalek egiten badute, nor arduratuko da, teknikariak edo nortzuk?

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

Udalek mendiko segurtasunari buruzko prestakuntza eskatu diote Eusko Jaurlaritzari, federatuak direnentzat soilik ez dena.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Adibidez, Kepa Lizarraga, medikua, eta Jon Beaskoetxea, teknikaria, orain arte EHUrako ikastaroak, hitzaldiak eta abar eman dituztenak.

– Gailurra klubak, aktan jasotzea nahi du.

Pyrenaicari dagokionez, nola zehaztuko da? Azken zenbakian agertu den moduan? Hutsa dela iruditzen zaio, gauza jakinak jasotzen baititu, hala nola meteoaren kontsultatzeko, eta antzeko gauzak. Zuzenagoa izan behar duela uste du; grafikoa izan behar du, baina ez oso teknikoa. Pyrenaica

aldizkarian argitaratutakoak alderantzizko eragina sortzen du, betiko gai horiek betiko moduan lantzen dituelako.

Bideoan egindako gastuak harritu egin du.

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

Bideoa mendira joaten diren pertsona guztientzat egin da.

– Gailurra kluba

Aplikazioaren datu-basera APP bidez soilik sar daiteke, edota baita beste leku batzuetatik ere? Publikoa, eskuragarria eta berrerabilgarria izango da? Esaterako, deskargatu eta zabaldu daiteke?

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

Ez daki erantzuna, ez baitu aplikazioa berak garatu.

– Goikomendi kluba

Udalekin segurtasunari buruzko harreman horri dagokionez, iruditzen zaio gerta daitekeela udalek klubak kontuan ez hartzea; etorkizunean, klubak alde batera utziko dituzten beldur da.

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

Uste du klubak ez direla alde batera utziko

– Gailurra kluba

Baina, parte aktibo gisa deituko zaie?

✓ *Bidezidorren Batzordeko kidea*

Eusko Jaurlaritzari helaraziko diote klubak kezka.

– BMFren lehendakaria

Segurtasun Hitzarmenean, 25.000 € ditugu. Eta itzuli egiten dizkiogu? Eusko Jaurlaritzak jada atera du aplikazio bat.

Itzuli egingo dizkiogu, adibidez, BMFk borondate oneko gidarientzako proposamen bat duenean eta kasurik egin ez zaionean. BMFren proiektua ez da aurkeztu ere egin.

✓ *EMFren lehendakariordea*

EMFk federatu guztientzako proposamenak eskatzen ditu. Horregatik, Eusko Jaurlaritzarako proiektuak federatu guztiei eragiten dio.

– GMFren lehendakaria

Borondate oneko gidarien ikastaroa aipatu du, GMFrena zena. Klubei oso zaila egiten zaie egutegia osatzea, borondate oneko gidarien gaia dela-eta.

– Gailurra kluba

Proposamen ona eta baliozkoa bada, zergatik ez da behar bezala balioesten? Ez dio balio arrazoi horrek.

✓ *EMFren lehendakaria*

Eusko Jaurlaritzak eskatzen duenari eutsiko diogu, edota, adibidez, AMFri inposatuko diogu? Gailurra kluba

Barne-prestakuntza gehiago egin behar litzateke; klubetako irteeretan, bazkideak ez direnak ere badaude. Irteerak egin nahi baina egiteko gai ez dela uste duen jendea dago. Kontuan hartu beharreko hutsunea da.

– Vasco de Camping kluba



Borondate oneko gidariarentzat titulu atera behar genuke, ondorioen aurrean babes emango liekeena. Federazioak titulu bat ateratzen saiatu behar luke.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Zuzendaritza Batzordea urte honetarako itxita badago ere, Eusko Jaurlaritzari helarazteko konpromisoa hartu du.

✓ *EMFren lehendakaria*

Lehendakaritzaren txostena ixteko, jakinarazi da 32.362 federatu daudela, iaz garai honetan baino 150 gehiago.

Gai-zerrendako 3.puntua aztertzerako joko dela esan du idazkariak.

3. 2017ko Itxieraren proposamena eta onarpena, hala badagokio

Diruzainak hartu du hitza, eta aurkeztutako kontuen itxieraren proposamena berraztertu du, partidak, 2017ko azaroan egin zen aurrekontuaren jarraipenarekin dituen antzekotasunak eta desbideratzeen arrazoiak aztertuz. Esan du Eusko Jaurlaritzari rokodromo baten proiektua eta kirol-instalazio berriak proposatu zaizkiola. Txikienak motibatzen eta berreskuratzen saiatzera animatu ditu batzarrean bildutakoak.

Esku-hartzeak:

– Gorla kluba

Balantzeko kontuen gaineko zalantzak ditu; aktiboen batura osoaren % 36an, zein da edukia? Eta aurreratuetan ere bai. "Merkataritza" zuzkidura bati buruz ere galdetu du.

✓ *EMFren Aholkularitzako arduraduna*

Aurreratuen atalak 2018. urteari dagozkion lizentzien diruaren zenbatekoa, 2017an kobratzen dena, islatzen du. Zuzkidura abiadura-horma egiteko eta etorkizuneko kirol-instalazioak egiteko beharrezkoa dela estimatu dugun diruari dagokio.

– Hainbat klubek hitz egin dute, eta abiadura-hormari buruzko azalpen gehiago eskatu dituzte: zer den, zer prezio balioetsi den, non kokatuko den, eta federatuen diruarekin eraikitzen bada, horma hori erabiltzeko erraztasunik edota lehentasunik izango duten.

✓ *Lehendakariordeak eta idazkariak erantzun diete*

Abiadura-hormak 70.000 €-ko kostua izango duela estimatu da; aukera batek edo besteak izan ditzaketen abantailak eta desabantailak balioesten ari dira (Fadurako Goi Errendimenduko Zentroa eta Gasteiz, bereziki), eta, erabakia hartzen denean, batzarrari jakinaraziko zaio. Azkenik, esan dute hitzarmena idazterakoan kontuan hartuko dela federatu guztiek berori erabiltzeko eta gozatzeko izango duten aukera.

– Baskonia kluba

Uste du beste urteekiko perspektiba (2016koa eta 2017koa) falta dela itxieran, eta zutabe berriak ezartzeko eskatu du.

✓ *EMFren diruzaina eta lehendakariordea*

Zutabe berriak txertatzea balioets daiteke, baina horrela egin zen, batzarrean hala eskatu zelako.

– Gailurra kluba



Gogoratu du aurreko batzar batean diru-sarrerak eta gastuak bereizteko eskatu zela, partida desberdinen ehunekoen perspektiba gaitzen delako (egiaz, diru-sarrera eta gastu guztien % 85 dela aipatu du), eta horrela dagoela jasota dagokion aktan.

Galdetu du ea zergatik ez den gastatu bidezidorren gastuetarako aurreikusitakoa, gai-zerrendako aurreko puntuan eman zaion garrantzia ikusita.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Egon zitezkeen gastuen estimazio bat egin zen, eta ez da gasturik egon; horixe da dena.

BOZKETA:

BAI: 46 boto, % 67,65

Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.T., Iturribero M.T., San Ignacio Kluba, Artarra M.T., Egunsentia M.T., Erdella M.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Juventus K.E., Aizkardi M.E., Beasaingo Arrastaka M.K.T., Alpino Uzturre Elkarte, Vasco de Camping Kluba, Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkarte, Mendi Zaleak M.E., Erlaitz K.E., Antiguoko Mendizaleen Elkarte, José Ramón Alonso Rodrigo, Domingo García Valerio.

EZ: 10 boto, % 14,71

Arroletza A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Turista Barakaldo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Víctor M. Vivar

Abstentzioa: 12 boto, % 17,65

Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Ganguren A.T., Goiko Mendi A.T., Munarrikolanda, Enkarterri M.E., Untza M.T.

Guztira: 68 boto

Gehiengoz, onartu egin da 2017ko kontuen itxiera.

4. 2018ko jardueren egutegia onartzea, hala badagokio

EMFren lehendakariordeak jarduera hauei buruz hitz egin du: eskia (dagoeneko amaituta, eta hurrengo denboraldia prestatzen), boulder liga (egin diren probetan, parte-hartzaileen kopurua arrakastatsua izan da), eskalada, mendi-lasterketak (txapelketako proben deskribapena eta ranking berriaren sarrera), Mendizaletasunaren Gala (jada Gasteizen egin zen, eta, San Ignacio klubak egindako lan handia eskertzeaz gain, 2019ko Gala Erdella klubak antolatuko duela eta Elorrion egingo dela jakinarazi du), eskalatazailer gazteak (14 urtetik beherakoen topaketa), Oroipen Eguna (horren ardura duten hiru klubetako zikloaren barnean, Erdella arduratuko da aurtengoan), Ehun Mendien Eguna, Beteranoen Martxa (Juventus arduratuko da, elkartearen 75. urteurrena dela-eta), Haurren Martxa (beste onomastika batekin batera egin izan da, Orozkoko Itxinaperekin), Orientazio Martxa (oraindik ez dago arduradunik), Ibilaldi Luzeko Martxa / Zirkuitua... Lehendakariak gaineratu du aurten Eskiko Zeharkaldia berreskuratu dela, aurreko urtean azken unean bertan behera utzi behar izan baitzen.

– Munarrikolanda kluba

Hurrengo Galan argazkiak egiteko aukera izan dezaten eskatu du.

✓ *EMFren lehendakariordea*

Eskaera jaso du.

BOZKETA:

BAI: 45 boto, % 66,18

Amurrio Trailrunning M.K., Gazteiz M.K., Iturribero M.T., San Ignacio Kluba, Artarrai M.T., Egunsentia M.T., Erdella M.T., Ganguren A.T., Ganzabal M.T., Goigain M.T., Aizkardi M.E., Beasaingo Arrastaka M.K.T., Alpino Uzturre Elkarte, Club Vasco de Camping, Itsastarrak M.T., Goierri K.E., Gorla A.T., Irungo Mendizaleak, Mendirik Mendi Elkarte, Mendi Zaleak M.E., Erlaitz K.E., Antiguoko Mendizaleen Elkarte, José Ramón Alonso Rodrigo, Domingo García Valerio.

EZ: 10 boto, % 14,71

Arroletza A.T., Gailurra M.T., Ganerantz M.T., Turista Barakaldo, Ainara Aparicio Arronategui, Txaro Iglesias Lareo, Víctor M. Vivar

Abstentzioa: 13 boto, % 19,12

Baskonia M.T., Deustuko Menditarrak, Goiko Mendi A.T., Juventus K.E., Munarrikolanda, Enkarterri M.E., Untza M.T.

Guztira: 68 boto

Aho batez onartu da 2018ko jardueren egutegia.

5. EMFren aseguruari buruzko galderak

2017ko azaroan egin zen batzarrak hala eskatuta, batzarrean sortu ziren zalantza batzuk bildu ziren, eta EMFren lehendakariak horiek irakurri ditu, bai eta Broker's etxeak emandako erantzunak ere. Gailurra klubeko ordezkariari eskerrak eman dizkio galderak idazten eta gainbegiratzen lagundu diolako.

– Gailurra kluba

Uste du konpainiak bereari eusten diola, gure eskaerei jaramonik egin gabe. Gai batzuk ez ditu ulertzen; BTTan, esaterako, hiritar kontzeptua anbigua da.

Orain mendi ibiliak egiten dituenak ezin du errepidean ibili. Nola daiteke hori? Adibidez, zer gertatzen da bidezidorretan zehar egiten diren ibilbideekin?

Aseguru-etxearen jarrera nahikoa "oldarkorra" da. Uste du kontua polizaren baldintzak hobetzea dela, eta balioetsi nahi da gaur egun dauden hutsune batzuk txertatzeak ea polizan gehiegizko gehikuntzarik dakarren.

Baliaezintasun-baremoak onartu egin behar izan dituzte, legezkoa delako, baina orain artekoa zer?

Kostatu egiten zaio ulertzea lehiatzen denean eta ez denean berdin ordaintzea, eta estaldurak kasuen eta probintzien arabera desberdinak izatea.

✓ EMFren lehendakaria

Ez du uste aseguru-etxea bereari eutsi nahian dabilenik. Bileretan, batzarretan eta abarretan parte hartu du, eta Gailurrako ordezkariari ere dei egin zaio horietara. Norvegiaren gaia, aurtengo Aste Santuetakoa, aipatu du; aldatu egin da, kontinentean dagoen Norvegiako zatia eta Lofoten uharteak munduko modalitatean txertatzeko eskatu baitzuten federatuek, eta ez espedizio modalitatean.

– GMFren lehendakaria



GMFk errondak egiten ditu bere klubean artean, eta bere batzarrean aurkeztuko du: aseguruari zuzendutako galdera mitikoei xedea ematea.

Aseguru-etxeak ehuneko garrantzitsua jasotzen du, asko kostatzen zaigu. Horren truke zer jasotzen dugu aseguru-etxearen eskutik prestakuntzari, gure galderen erantzunari eta abarri dagokienez?

Normala iruditzen zaio EMFk zalantzak izatea, eta, adituak diren heinean, argitu egin behar dituzte.

– Vasco de Camping kluba

Gaia EMFren eta lurralde-federazioen eskumenekoa dela uste du; bera bere Lurralde Federazioaren lehendakariak ordezkatzeko du, eta klubek esaten diotena helaraziko die hark.

– Erlaitz kluba

Abenduan hasten dira egiten aseguru/lizentziak izapidetzen, eta ez dugu polizarik otsailera arte; klausulak argitaratu behar lirateke, poliza eduki aurretik. EMFren lehendakariak sinatzen du poliza, baina Broker's etxera bidaltzen dira.

Galderetan luzamenduak gertatzen dira, eta berariaz gai honetaz arduratuko den norbait egon behar luke EMFn, edota gutxienez zeharka arduratzen den norbait, eta erantzunak helarazi beharko lizkieke.

✓ *EMFren idazkaria*

Batzarrari galdetu dio ea aurrekontuen kontura "aditu" bat kontratatzea nahi den, kudeaketa horietaz arduratzeko.

Batzarkideek "pertsona aditu" hori beharrezkoa den eztabaidatu ondoren, "Zalantza Ohikoenak" jasotzen dituen gida bat egitea erabaki da, azken urteetako kontsulten historikoa, aseguruari egindako galderak eta haren erantzunak oinarri hartuta; denboran zehar berraztertuko da dokumentu hori, zalantza edo jasota ez dauden egoera berriak sortzen diren heinean.

6. Galderak eta eskariak

Esku-hartzerik ez dagoenez, batzarra amaitutzat eman da, 13:55ean

Sinadura: EMFren idazkaria
VICENTE LÓPEZ

EMFren lehendakariak ontzat emana
JOSÉ RAMÓN ALONSO